



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko irailaren 18a

97. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, Nafarroako Ubideari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, Nekazaritza Politika Erkideari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, gure erkidegoaren intereseko bide-azpiegitura publiko berrien finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, emakumeak jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren esparruekin lotutako STEM ize-neko titulazioetan sartzea sustatzeko neurriei buruzkoa. María Elena Llorente Trujillo andreak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, ekialdeko Pirinioetako biztanleek oinarrizko zerbitzuak baliatu ahal izatea bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurri eta konpromisoei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Interpelazioa, gure erkidegoaren intereseko azpiegitura publiko berrien finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Parlamentuak bat egiten baitu Dislexiaren Egunaren inguruko ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Moriako kanpalekuan izandako suteak kaltetutako milaka migratzaile eta errefuxiatuei. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuizten baititu irailaren 13ko goizaldean Altsasun izandako istiluak. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Antzoki Sarerako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, A eta D ereduetan euskara ikasteari begira pandemiak izan dituen ondorioen analisiari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (9. or.).
- Galdera, pandemia dela-eta ikasturte hasieran baheketa-plan bat egiteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, irakaskuntzako kontingentzia plana aldatzea justifikatzen duten irizpideei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, ikasturte hasierako baheketan erabiltzen ari diren test azkarrei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, “Praktika artistikoak eta kultur ikasketak: gorputza, afektuak, lurraldea” masterrari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nasuvinsak udalekin sinatzen dituen hitzarmenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Radar Covid aplikazioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, “Delta 50” deitutako eremuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Estatuarentzako ekarpena gutxitzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Etxabakoizko Nicasio Landa Ikastetxe Publikoari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren eztabaidan onetsitako 45. erabakiari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, materia organikoaren gaikako bilketari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, 2020-21 ikasturterako irakasleen kontratazioak eta inbertsioak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak iragarritakoari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Iruñerriko hondakinen tratamenduari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, obra publikoan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartzea (20. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2020ko**

**urriaren 6ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/LEY-00014).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, Nafarroako Ubideari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Ubideari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Ubideari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## **Interpelazioa, Nekazaritza Politika Erkideari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nekazaritza Politika Erkideari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nekazaritza Politika Erkideari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Interpelazioa, gure erkidegoaren intereseko bide-azpiegitura publiko berrien finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, gure erkidegoaren intereseko bide-azpiegitura publiko berrien finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gure erkidegoaren intereseko bide-azpiegitura publiko berrien finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Interpelazioa, emakumeak jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren esparruekin lotutako STEM izeneko titulazioetan sartzeko neurriei buruzkoa.**

*MARÍA ELENA LLORENTE TRUJILLO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Elena Llorente Trujillo andreak aurkezturiko interpelazioa, emakumeak jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren esparruekin lotutako STEM izeneko titulazioetan sartzeko neurriei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Elena Llorente Trujillo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Behin ezagututa Europar Batasunak zer betekizun berri ezarri dituen COVID-19ak eragindako pandemiatik heldu den krisia arintzera bideratutako laguntzak jasotzeko, zeinetan garrantzi berezia baitute jasangarritasunak eta eraldaketa digitalak eta ezinbestean eskatzen baitute bi arlo horiekin lotutako espezialitate teknikoetako tituludunak edukitzea, honako interpelazio hau aurkezten diot Nafarroako Gobernuari, azal dezan zer neurri zehatz hartuko dituen emakumeak jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren esparruekin lotutako STEM izeneko titulazioetan sartzeko sustatzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Elena Llorente Trujillo

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

## **Interpelazioa, ekialdeko Pirinioetako biztanleek oinarrizko zerbitzuak baliatu ahal izatea bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurri eta konpromisoei buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko interpelazioa, ekialdeko Pirinioetako biztanleek oinarrizko zerbitzuak baliatu ahal izatea bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurri eta konpromisoei buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendu indarduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuari zuzendutako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Ekialdeko Pirinioetako biztanleek oinarrizko zerbitzuak –zehazki, ikastetxeetara joateko garraio duin eta segurua– baliatu ahal izatea bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurri eta konpromisoei buruzkoa.

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Interpelazioa, gure erkidegoaren intereseko azpiegitura publiko berrien finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.**

*INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa gure erkidegoaren intereseko azpiegitura publiko berrien finan-

tzaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa zen, eta 2020ko irailaren 11ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Parlamentuak bat egiten baitu Dislexiaren Egunaren inguruko ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du heldu den urriaren 8an eginen den Dislexiaren Egunaren inguruko ospakizunare-

kin, eta egun horretan Legebiltzarraren egoitzaren fatxada urdin turkesa kolorez argizatuko da.

2. Bat egiten du urriaren 8a Dislexiaren Mundu Eguna izendatzeko ekimenarekin”. (10-20/DEC-00074).

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Moriako kanpalekuan izandako suteak kaltetutako milaka migratzaile eta errefuxiatuei.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere elkartasuna adierazten die Moriako kanpalekuan izandako suteak kaltetutako milaka migratzaile eta errefuxiatuei.

2. Uste du premiazkoa dela Espainiako Gobernuak bat egitea Alemania, Frantzia, Finlandia, Luxenburgo, Eslovenia, Herbehereak, Kroazia, Portugal eta Belgika bezalako herrialdeen eraba-

kiarekin, prest agertu baitira errefuxiatu adingabeak hartzeko.

3. Uste du Espainiako Gobernuak politika europar berri baten aitzindari izan behar duela, halako moduz non Turkia, Maroko edo Libia bezalako herrialde mugakideak pertsona migratzaile eta errefuxiatuak atxiki ditzaten finantzatzeari utziko zaion eta zirkulazio librerako eskubidea aitortu eta asilo eta babes legedia beteko diren”. (10-20/DEC-00076).

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baititu irailaren 13ko goizaldean Altsasun izandako istiluak.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Arbuiatu egiten ditu irailaren 13ko goizaldean Altsasun izandako istiluak, bai eta kalte materialak eta pertsonalak eragiten dituen antzeko indarkeria-adierazpen oro ere.

2. Berriz ere dei egiten die herritarrei, arduraz joka dezaten eta errespeta ditzaten agintariek xedaturiko osasun neurriak, COVID-19aren pandemiari eta pairatzen ari garen osasun krisi larriari aurre egiteko”. (10-20/DEC-00077).

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Antzoki Sarerako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa.****MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Antzoki Sarerako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentari naizen aldetik honako hau jakin nahi dut Nafarroako Antzoki Sareari eta urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat egiteko mozioari buruz:

• Zertan da hitzarmen horren sinadura eta noizko aurreikusten da sinatzea?

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

**Galdera, A eta D ereduetan euskara ikasteari begira pandemiak izan dituen ondorioen analisiari buruzkoa.****BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, A eta D ereduetan euskara ikasteari begira pandemiak izan dituen ondorioen analisiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi dio Hezkuntza Kontseilariari Carlos Gimeno Gurpegui jaunari, Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Pandemiak eragindako konfinamenduaren ondorioz, kezka bizia sortu da hainbat eremutan, familien eta euskararen sustapenean lan egiten duten eragileen artean nagusiki, D ereduko ikasleen kasuan bereziki baina baita A eredukoetan ere, euskararen gaitasuna eskuratzeko prozesuak

atzerakada pairatu ote duen. Kontuan hartu behar da eredu hauetako ikasle gehienek ez dutela euren familietan eta inguru hurbilean testuinguru euskaldunik eta sei hilabetez euskararekin izan duten harremana oso eskasa izan dela.

Egin al du edo egiteko asmoa dauka Hezkuntza Departamentuak hausnarketa edo azterketa berezirik A eta D ereduko ikasleen artean, hizkuntza gaitasunean izandako eragina neurtzeko, eta, behar izatekotan, neurri bereziak hartzeko atzerakada hori zuzentzeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

## **Galdera, pandemia dela-eta ikasturte hasieran baheketa-plan bat egiteari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, pandemia dela-eta ikasturte hasieran baheketa-plan bat egiteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta Nafarroako Gobernuak ikasturtearen hasierarako duen baheketa-plana eta, baldin eta halakorik balego, aldizkako baheketako ekintzak.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, irakaskuntzako kontingentzia plana aldatzea justifikatzen duten irizpideei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, irakaskuntzako kontingentzia plana aldatzea justifikatzen duten irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Ikastetxeetarako nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikorako kontingentzia planeko agertoki-aldaketa bat justifikatzen duten irizpide objektiboak, Nafarroako Gobernuak definituak.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, ikasturte hasierako baheketan erabiltzen ari diren test azkarrei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, ikasturte hasierako baheketan erabiltzen ari diren test azkarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Zer test azkar erabiltzen ari dira ikasturte hasierako baheketan? Zer markatakoak dira?

Zer balidazio egin da sintomarik gabeko pertsonetan erabilitako test azkar horiek direla-eta?

Sintomarik gabeko pertsonetan egindako balidazioan zein da test horien sentsibilitatea eta espezifikotasuna?

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, “Praktika artistikoak eta kultur ikasketak: gorputza, afektuak, lurraldea” masterrari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, “Praktika artistikoak eta kultur ikasketak: gorputza, afektuak, lurraldea” masterrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

EH Bildu talde parlamentarioak aurkeztutako zuzenketa baten bidez, partida bat sartu zen aurrekontuetan, Uharteko Arte Garaikideko Zentroan unibertsitateko ikasketak artistikoak egin ahal izan daitezkeen, NUPekin eta EHUekin lankidetzan. Horren emaitza da, hain zuzen ere, “Praktika artistikoak eta kultur ikasketak: gorputza, afektuak, lurraldea” masterra.

Hori dela-eta, parlamentari naizen honek honako hauei buruzko balorazio eta informazioa jaso nahi dut:

- Titulu horren ezaugarri berekiak.
- Masterraren eskari eta harrera maila.
- Nafarroarentzat eta zentroarentzat duen balio erantsia.

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nasuvinsak udalekin sinatzen dituen hitzarmenei buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nasuvinsak udalekin sinatzen dituen hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Udalek azken hamar urteotan Nasuinsarekin (orain, Nasuvinsarekin fusionatua) eta Nasuvinsarekin sinatutako hitzarmenei eta jarduketa-sistemei buruz jaso dugun informaziotik egiaztatu ahal izan dugu kasu bakar batean baliatu dela “lankidetzaren” jarduketa-sistema; zehazki, Lekunberriko Udalarekin sinatutakoan. Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

Nasuvinsak zer irizpide eta azterlanetan oinarrituta justifikatzen ditu bere jarduketa-sistemak,

industriaren edo etxebizitzaren arloetan hirigintza-ekimenak garatzeko?

Nasuvinsak ba al du beste toki entitate batzuekin hitzarmenak sinatzeko asmorik, "lankidetzaren" bidez gara daitezen?

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Radar Covid aplikazioari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Radar Covid aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

1.- Gaixotasuna kutsatutako kasuetan miaketa-lana errazte aldera Gobernu zentralak taxututako Radar Covid aplikazioak ez du aukerarik ematen migratzaileen hizkuntzetan erabili ahal izan dadin. Zer iritzi diozu horri?

2.- Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak ere ezin dute aplikazioa modu autonomoan baliatu. Zer iritzi diozu horri?

3.- Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egin du orain arte edo egin nahi du ahalbidetze aldera tresna hori une honetan eskuragarri dauden hizkuntzetan (gaztelania, ingelesa eta katalana) erabili ahal izan dezaten Nafarroan bizi diren migratzaileek eta ikusmen-desgaitasunen bat duten pertsonak?

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## Galdera, “Delta 50” deitutako eremuari buruzkoa.

### ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, “Delta 50” deitutako eremuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari egindako honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun diezaion:

Prentsa digitalean nahiz sare sozialetan jasotakoaren arabera, Nafarroako baso-suhiltzaileek salatu dutenez, egunotan aire-murrizketako eremu bat aktibatuta da, Bardea osoa eta Nafarroako erdialdearen eta hegoaldearen zati handi bat hartzen dituena: “Delta 50”. Horren eraginez, helikopteroz garraiatutako Nafarroako Gobernuaren brigadari ukatu egin zaio eremu horretatik igaro-

tzea; hortaz, suteak itzaltzeko aire-baliabideek itzulginguruak egin behar dituzte edo bueltaka ibili behar dute emergentzia gertatu den lekuetara hurbiltzeko.

Salatu dutenez, hori da irail honetan bi egun jarraituan gertatu dena, “Delta 50” eremu horretatik igarotzea ukatu zaienean.

Zehazki, atzo, irailak 8, emergentzia bat artatzerantz zihoan helikopteroari berriro ukatu zitzaion baimena, eta Tafalla gainean hegari ibili zen hamar bat minutuz, inoiz helduko ez zen baimenaren zain.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Egia al da badela Tafallatik Bardearaino doan “Delta 50” eremu hori, zeinak mugatu egiten baitu aire-ibilgailu oro bertatik hegaldatzea?

– Azken bost urteotan, suteak itzaltzeko aire-baliabideei, helikoptero medikalizatuari edo Nafarroako Gobernuaren mendeko bestelako emergentzia-baliabideei zenbat aldiz ukatu zaie eremu hori igarotzeko baimena?

– Abiazio Zibilak edo Noingo aireportuko kontrol-dorreak zer arrazoi eman dute aire-baliabideei baimena ukatzeko?

Departamentuak jakin al daki inoiz, eremua igaro eta emergentzia bati erantzutera azkarrago iristeko baimenik ezagatik, emergentzia bat oke-rragotu ote den?

Iruñean, 2020ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## Galdera, Estatuarentzako ekarpena gutxitzeari buruzkoa.

### ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Estatuarentzako ekarpena gutxitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuari egindako honako galdera hauek aurkezten dizkio Mahaiari, idatziz erantzun diezazkion:

Gobernuak 2020ko maiatzaren 20an hartutako erabakiaren bidez, aurrekontu-aldaketa bat bai-

mendu zen, Garapen Ekonomiko eta Enpresariarileko Departamentuan kreditua 34.425.000 euro handitzeko 810012-81500-4709-494103 partidaren.

Akordio horren 2. apartatuan jasotzen denez, "Proposatzen den handitzea oso-osorik finantzatuko da 160000-17100-4000-941100 Estatuarentzako Ekarpena partidaren kargura".

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Gobernuak zer arrazoi izan du Estuaturaren ordaindu beharreko zenbatekoa 34.425.000 euro gutxitzeko?

– Hitzartutako zergetan Estatuak 2020an lortutako dirubilketa likidoa 2019koa baino askoz txikiagoa izanen dela uste delako hartu al da erabaki hori?

Erabaki hori Nafarroako Gobernuak alde bakarez hartu al du, ala Estatuarekin adostuta hartu da?

– Estatuarekin adostu baldin bada, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen zer bilkuran hartu zen erabaki hori edo noiz erabaki zer organo horretatik kanpo?

Iruñean, 2020ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## Galdera, Etxabakoizko Nicasio Landa Ikastetxe Publikoari buruzkoa.

### BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Etxabakoizko Nicasio Landa Ikastetxe Publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

Aurretik Gobernuari egindako 10-20-/PEI-00230 informazio eskaerari erantzunari erreparatuz, Etxabakoizko Nicasio Landa ikastetxearen egoera kezkarria dela esan daiteke. Batetik, matrikulazio datuetan, azken 10 urteotan ikasle kopurua %63,2 gutxitu baita eta egun 32 ikasle besterik ez dagoelako. Bestetik, ikasleen hezkuntza beharrak oso handiak direlako, ikasleen %86,7 egoera sozioekonomiko ahulean dagoela-

ko eta Nafarroa osoan indize altuena daukan ikastetxea delako. Azkenik, irakasleriari dagokionez, itinerantzia maila oso handia da eta "probisio zail"eko plazak dira.

Departamentuak ikastetxeari aitortzen dio hezkuntza eta gizarte ikuspegitik egiten duen lan eskerga eta asmoa adierazten du ikastetxea irekita mantentzeko matrikula hain txikia izanda ere, itxiko balitz eskola absentismoa areagotzeko arriskua larria litzatekeelako.

Gure ustez, irekita mantentzea ez da nahikoa, baldin eta bestelako neurririk hartzen ez bada eskolan matrikulazioa handitzeko eta auzoarekiko lotura indartzeko. Hartara, Gobernuari galdetu nahi diogu:

– Aztertu ditu Gobernuak Etxabakoitz auzokoak diren eta auzotik kanpo matrikulatzen diren adin-tarte honetako ikasleen kopuruak eta beharrrak? Informazio zehatza eskatzen dugu, zein ikastetxetan eta zein eredutan matrikulatzen diren.

– Aztertu du Gobernuak, bere kabuz edo Iruñeko Udalarekin batera, ikastetxea biziberritzeko eta auzoarekiko lotura komunitarioa indartzeko neurriren bat? Egin al da kanpaina berezirik matrikulazioa sustatzeko edo asmorik dauka Departamentuak 2021-22 ikasturterako egiteko?

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren eztabaidan onetsitako 45. erabakiari buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren eztabaidan onetsitako 45. erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, talde parlamentario guztien bidez, ekain osoa eman zuen pandemiak eragindako egoerari aurre egite aldera Nafarroan suspertze sozial eta ekonomikorako ekimenak hartzearen sortutako batzorde berezian erabaki

proposamenak aurkeztu, eztabaidatzen eta bozkatzeko.

Eztabaida haren ondorioz, 126 erabaki onetsi ziren, zeinak Nafarroako Gobernuak osorik jaso baititu orain dela aste gutxi aurkeztu zen Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planaren eranskinean. Hezkuntzaren arloan, Gobernuak bere egin dituen 10 erabaki onetsi ziren, planaren 139. orrialdean jasotzen denez; honako hauek, hain zuzen ere: 28, 29, 120, 121, 122, 123, 124 eta 125.a.

Aho batez onetsitako erabaki proposamen horietako bat 45.a zen, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen. Honako hau dio:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Nafarroako hezkuntza-komunitatearekin adostu ditzan irailean izan ditzakegun egoera epidemiologiko desberdinen arabera hartu beharreko neurriak, eta gure errealitateari egokitutako kontingentzia plan bat presta dezan. Plan horrek honako ezaugarriak izanen ditu:

- Beharrezkoak diren baliabide guztiak izanen ditu, departamentuaren aurrekontuan inongo murrizketarik egin gabe.



- Ikastetxetarako eta ikasleentzako prestakuntza ibilbide bat eta baliabide digitalen hornidura jasoko ditu.

- Ratioen jaitsiera dela eta, kontratazio-beharri-  
zan nahikoak aurreikusiko ditu.

- Hezkuntza-errefortzurako plan bat jasoko du,  
ikastetxe bakoitzaren errealitatean oinarritua.

- Talde txikiagoak bermatzeko espazioen  
egokitzapena aurreikusiko du, bai eta beste espa-  
zio osagarri batzuen erabilera ere.

- Segurtasun eta Osasun Batzordearen espa-  
rruan prebentzio-ordezkariekin adosturiko segurta-  
sun neurri guztiak jasoko ditu.

- Testak egitea ziurtatuko da, bai eta babes-  
materiala ikasgeletara joanen diren irakasle eta  
ikasle guztientzat, eta jarraipen egokia eginen da  
ikasturte osoan zehar.

- Araubide bereziko ikasketa eta ikastetxeen  
berezitasun eta desberdintasunetan oinarrituta,  
ikastetxe bakoitzak bere plan berezitua eta egute-  
gia adostu beharko du.

- Eskola-garraioa higiene- eta distantzia-  
neurrietara egokitzea. Eta beharrezkoa duten per-  
tsonetara mugatzea.

- Jolas-orduaren berrantolaketa, Gorputz Hezi-  
ketako saioen egokitzapena eta protokolo bere-  
ziak ezgaitasuna duten haurrekin egin beharrezko  
saiotarako.

- 200 ikasle baino gehiagoko ikastetxeetan eri-  
zain bat egotea. 200 ikasle baino gutxiagoko  
ikastetxeetan, esku-hartzeko edo jarraipenerako  
protokolo bat zehaztu ahalko da kasuan kasuko  
osasun etxe edo kontsultategiarekin.

- Ikastetxe guztietan psikologo profesional bat  
izatea ahalbidetzea. COVID-19ak eta konfinamen-  
duak sorturiko egoerak eragin psikologikoa izan  
dezake ikasle batzuegan. Hori dela eta, askotan  
zaugarriak diren familietako egoera desberdinek  
eragin zuzena izan dute ikasleengan. Horrenbes-  
tez, psikologo batek garrantzi handiko eginkizuna  
izan dezake ikastetxeetan zaintzarako hezkuntza  
egokia bermatzeko”.

Zein da zure iritzia kontingentzia plana dela-eta  
onetsitako puntuetako bakoitzari buruz eta zein da  
horietako bakoitzaren betetze-maila?

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, materia organikoaren gaikako bilketari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, materia organikoaren gaikako bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

14/2018 Foru Legea onetsi zenez geroztiko datuak, materia organikoaren gaikako bilketari buruzkoak. Legea onetsi zenez geroztik Gobernuak sustatutako kanpainei esker zer kopuru edo portzentajetan murriztu da hondakinen sorkuntza? Noiz bildu zen azkeneko aldiz plan zuzendariaren jarraipen-batzordea?

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Galdera, Iruñerriko hondakinen tratamenduari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Iruñerriko hondakinen tratamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Landa Garapeneko Departamentuak noiz aurreikusten du beteko dela Iruñerriko hondakinei buruzko zuzentarauan ezarritakoa?

Landa Garapeneko Departamentuak noiz aurreikusten du egon ahalko dela funtzionatzen Iruñerriko Mankomunitateak sustatutako instalazio berria? Hirigintza eta ingurumen izapidetzearen zer fasetan da proiektua? Nola finantzatu da horren eraikuntza?

Departamentuak zer iritzi dio ingurumenaren ikuspuntutik hautatu den alternatiba teknikoari?

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen

## **Galdera, 2020-21 ikasturterako irakasleen kontratazioak eta inbertsioak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak iragarritakoari buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, 2020-21 ikasturterako irakasleen kontratazioak eta inbertsioak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak iragarritakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntzako kontseilariak iragarri du 47 milioi estra inbertituko direla 2020-2021 ikasturtean

pandemiak eragindako egoerari zor zaizkion neurrietan eta 666 irakasle kontratatuzko. Hori ikusita, honako hau jakin nahi dugu:

– Nola banatzen dira, zehatz-mehatz, Departamentuak jada aurreikusitako aurrekontuaz haragoko 47 milioi estra horiek? Kontzeptuak eta zenbatekoak zeintzuk diren jakin nahi dugu zehatz-mehatz, bai eta zenbateko horiek nork jasoko dituen ere, titulartasun publiko edo pribatutunduko ikastetxeen edo toki entitateen kasuan.

– Haur Hezkuntzako ratioa 20 ikaslera jaitzi izanak zer emaitza izan du? Zenbat talde berri sortu dira eta zenbat kontratazio ekarri ditu neurri horiek? Ikastetxeen titulartasunaren arabera xehakatuta jaso nahi ditugu datuak.

– Nola xehakatzen dira iragarritako 666 kontratazio berriak? Horiek guztiak al dira aparteko kontratazioak, egoera sanitarioari eta hartutako neurri bereziei lotuak?

– Laguntzako zenbat irakasle kontratatu dira errefortzu modura gainontzeko hezkuntza-etapetan? Ikastetxeen titulartasunaren eta etapen arabera xehakatuta jaso nahi ditugu datuak.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, obra publikoan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera obra publikoan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa zen, eta 2020ko

irailaren 8ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Aranzazu Izurdiaga Osinaga foru parlamentari andreak 2020ko irailaren 8an idazki bat aurkeztu du, zeinean jakinarazten baitu EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartu dela.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 32. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honakoa erabakitzen da:

**1.** Aranzazu Izurdiaga Osinaga foru parlamentari andrea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartzearen berri izan duela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias